



TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

SAILKATUTAKO JARDUERARAKO LIZENTZIA ESKABIDEA

1. JARDUERA ETA OBRA LIZENTZIA:

Eskabide orokorra, behar bezala betea.

- *Harremanetarako telefonoa jarri.*
- *Obra zein partzelatan eta poligonotan egin nahi den adierazi.*

Jarduera-proiektua, zer jarduera eta obra egin nahi diren adieraziko dituen. Teknikari eskudun batek idatzi eta dagokion elkargo profesionalaren ikus-onetsi beharko du, honako arau hauei jarraikiz: Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legea, 93/2006 Foru Dekretua, 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua eta 448/2014 Foru Agindua (2 ale egin beharko dira: bata paperezko euskarrian eta bestea, euskarri digitalean).

Segurtasun- eta osasun-azterlana, edo, hala badagokio, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera.

Lanak egingo dituen eraikitzailea Nafarroako Gobernuko Lana Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eraikitzaile-edukitzaileen erregistroan inskribaturik egotearen ziurtagiria, 23/2011 Foru Dekretuaren 3. puntuan ezarritakoa betez.

2. IREKITZEKO LIZENTZIA

Eskabide orokorra behar bezala beteta, harremanetarako telefonoa adierazita.

Obra amaierako agiria, teknikari eskudun batek idatzia eta dagokion profesionalen elkargoak ikus-onetsia. Agiriek, besteak beste, jarduerarako eta obrarako lizentzia ematean ezarritako neurriak betetzen direla egiaztatuko dute (2 ale, bata, paperezko formatuan eta bestea, berriz, formatu digitalean).

Udaleko Ur Zerbitzuan alta emanda egotearen ziurtagiria, edo Udalari ur-kontagailua ordaindu izanaren egiaztatzea eta IAEko ziurtagiria.

Behin obrak amaitu ondoren, fidantza itzultzeko eskaria aurkeztuko da, 23/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez. Eskari horrekin batera hondakinak behar bezala kudeatu izanaren egiaztagirial/entregako faktura aurkeztu beharko da, foru dekretu honen 2D eranskinaren arabera. Fidantzaren zatiak itzultzeko eskatzen ahalko da. Horretarako, kudeatzaile baimenduak egindako egiaztagiri edo entregako faktura partzialak aurkeztu beharko dira.